



Europako Parlamenturako
HAUTESKUNDEAK
2024-06-09

EIBARKO EMAITZAK

EH BILDUK BAINO 642 ETA EAJ-PNV-K BAINO 1.643 BOTO GEHIAGOREKIN


PSE da Eibarko europarrena

Hiru hilabete ere ez dira pasatu azken aldiz botoa ematera joan ginenetik herriko hauteslekuetara. Eta, beste behin, hauteskunde bakoitza desberdina dela erakutsi digute domeka honetako emaitzek. Portzentaietatik hasita eta, esperotakoari jarraituz, parte-hartzean %12ko jaitsiera eman da apirileko Eusko Legebiltzarrerako botoa ematera joan zen kopuruarekin konparatuz, orain boto-eskubidea zutenen erdia besterik ez baita gerturatu hauteslekuetara (%50'73). Abstentzioa, beraz, %49'27koa izan da. Apirilean 12.821 boto-emaile izan zirenean, oraingoan 10.397 besterik ez dira izan. Hori hain tarte txikian zentsoa ere zertxobait handitu denean: apirilean 20.557 baziren boto-eskubidea zutenak, oraingoan 44 gehiago ziren europarretarako deituak (20.601).

Apirilean Eibarren hirugarren alderdi bozkatuena izan zen PSE-EEk lortu ditu oraingoan boto gehien. Orain dela hiru hilabete 2.948an izan bazituen, 3.602 boto lortu ditu orain (654 irabaziz). Apirileko lehenengo bi alderdiek, bestalde, boto-emaile asko galdu dituzte ordukoarekin konparatuz. EH Bildu bigarren geratu da, sozialistengandik 642 botori, eta 1.185 boto galduta. Hala ere, bada kopuru handiagoan atzera egin duena: EAJ-PNV hirugarren gure herriko sailkapenean. Hauek ezker abertzaleak baino mila boto gutxiago atzera dituzte oraingoan eta, 1.959 botorekin, 1.847 botoetan egin dute atzera. Estatu mailako alderdiek aurrera egin duten honetan, PP-k ere, bide beretik, boto batzuk irabazi ditu, 79 hain zuzen ere. Podemos eta Sumar, Sumar eta Podemos, hor ibili dira nahiko paretsu Eibarko hauteslekuetan, azkenean euren artekoa Podemosek irabazteko, gutxigatik bada ere: batzuk 300 boto, besteek 263. Baina hor ere izan da aldaketarik bi-hiru hilabete honetan: Podemosek hiru boto gehiago izan ditu, orduko 297 300 bihurtuz, eta Sumar-ek alderantzizko bidea egin du, 386tik 263ra pasatzeko, hau da, 123 boto galduz. Vox-ek ez dirudi etorkizun askorik duenik gurean, eta 25 boto galdu ditu, orduko 170etik 145era pasatzeko. Portzentaietan, PSE (%35), EH Bildu (%29) eta EAJ-PNV (%19) dira askogatik alderdi indartsuenak.

Eibartik irten eta ingurura jauzi eginez, Euskal Autonomia Erkidegoan EH Bildu izan da alderdi nagusia botoetan, guztira 227.911 botorekin. Gertutik jarraitu dio PSOE-k, 225.084rekin. Eta EAJ-PNV hirugarren geratu da, 194.532 botorekin. Nafarroan, bestalde, PSOE nagusitu da oraingoan, 74.861 boto eskuratu ondoren; hor ere ez da alde handirik izan bigarrenarekiko, PP-k 72.856 boto jaso dituelako. Eta hor EH Bildu hirugarren postuan dugu, 48.762 botorekin. Aipatutako bi horietako gehiketa egiten badugu, Hego Euskal Herriko datuak ondorioztatzeko, PSOE izango litzateke alderdi nagusia, 300.082 botorekin guztira. Orain Errepublikak bigarren tokian izango genuke, 276.692 boto jasota. Atzetik izango genituzke CEUS, 202.778rekin, eta PP, 172.770rekin. Ipar Euskal Herriari dagokionez, hor Le Pen-en Batasun Nazionalak jaso du boto gehien (29.516), PS-Plaza Publikoa (22.182) eta Renaissance (21.498) alderdien aurretik. Frantziako ultraeskuindarrak "emaitza historikoak" lortu ditu eta, horren eraginez, Frantziako presidente Emmanuel Macronek Asanblea Nazionala desegin du, eta hauteskundeak deituko dituela iragarri du: datorren ekainaren 30ean eta uztailaren 7an egingo dituzte.

Europako Parlamentu berriak 720 parlamentari izango ditu, orain arte baino 15 gehiago. Herrialdez-herrialde begiratuta, Alemania da nagusi, 96rekin, eta atzetik datoz Frantzia (81), Italia (76), Espainia (61) eta Poloniaren (53) aurretik. 2019ko honen aurreko hauteskundeetan Espainiak 54 ordezkari izan zituen, gero Brexitarekin 59ra pasatu zirenak, eta orain bi gehiago izango dira. Azken bost urtekoan honakoak izan dira estatuko ordezkariak: PSOE (21), PP (13), Cs (8), Podemos (6), Vox (4), Orain Errepublikak (3), Junts (39 eta CEUS (19). Gaurko emaitzekin, honakoak dira Espainiako estatua ordezkatzeko dutenak Europako Parlamentuan: PP (22), PSOE (20), Vox (6), Orain Errepublikak (3), Sumar (3), Se acabó la fiesta (3), Podemos (2), Junts (1) eta CEUS (1). PP eta PSOEren artean ez da alde handirik izan, eta bitxia da baita Alvisse Perez eskumakoaren Se acabó la fiesta lortutako hiru eserlekuak.



AUZORIK AUZO

HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTOAK

	PSE-EE	EH Bildu	EAJ-PNV	PP	Podemos	Sumar	Vox
Amaña	538 (%42)	254 (%20)	131 (%11)	136 (%12)	36 (%2)	36 (%2)	15 (%1)
Ipurua	429 (%34)	418 (%33)	179 (%14)	95 (%8)	35 (%3)	32 (%3)	12 (%1)
Urki	403 (%41)	256 (%26)	123 (%13)	72 (%7)	33 (%3)	33 (%3)	14 (%1)
Udaletxea	692 (%31)	652 (%30)	468 (%21)	141 (%6)	66 (%3)	55 (%3)	34 (%2)
Errebal	890 (%29)	914 (%30)	707 (%23)	215 (%7)	86 (%3)	75 (%2)	45 (%1)
Urkizu	650 (%37)	466 (%26)	351 (%20)	157 (%7)	44 (%2)	32 (%2)	25 (%1)
GUZTIRA	3.602 (%35)	2.960 (%28)	1.959 (%19)	816 (%8)	300 (%3)	263 (%3)	145 (%1)

ZENTSOA: 20.601 BOTO-EMAILEAK: 10.397 PARTE-HARTZEA: %50'73 ABSTENTZIOA: %49,27

Ekainaren 9ko hauteskunde hauetan PSE-EE sei zonaldeetatik bostetan nagusitu da, guztietan EH Bilduren aurretik geratzeko. Ezker abertzalearentzat izan da seigarrena, Errebal, ez askorengatik; baina gutxigatik ez da lehena izan Ipuruan eta Udaletxean.

